



2026KO SANFERMINETAKO BALANTZEA

PROGRAMAZIOA

EKITALDI JENDETSUAK: 537.000 LAGUN

- **Su artifizialak:** 385.000 ikusle inguru Yanguas y Mirandan, Armada etorbidean eta Gaztelugibelen
- **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa:** 152.000 lagun. Uztailak 14an, asteartearekin, Konpartsari agur egiteko 2.000 lagun bildu ziren Udaletxe plazan.

HAUR ETA FAMILIENDAKO JARDUERAK: 295.142 LAGUN

Askatasunaren plazako (Hauek Festak Hauek!) eta Media Luna parkeko (Kirolari Sports Kids) haurrendako jarduerak ordutegi murritzua izan zuten sanferminetan bero bolada zela eta. Eguerdiko 12:00ak eta arratsaldeko 19:00ak bitartean eguzkitan zeuden atrakzioak itxita egon ziren herritarrendako.

- **Birjolastu:** 48.400 lagun
- **Hauek Festak Hauek!:** 117.982 lagun
- **Kirolari Sport Kids:** 30.918 lagun
- **Haurrendako entzierroak:** 5.000 lagun
- **Kalejira:** 30.600 lagun
- **Txotxongiloak:** 4.050 lagun
- **Haurrendako trena:** 19.092 bidaiari, Askatasun plaza eta Merindadeen plaza lotzen dituzten trenetan
- **Haurrendako dantza-jaialdia:** 4.500 lagun
- **Zezensuzkoa:** 33.500 lagun
- **Animazioa konpartsaren atsedendian:** 1.100 lagun

KONTZERTUAK ETA DANTZALDIAK: 371.800 LAGUN

Gazteluko plaza izan da jaietako musika-agertoki nagusia, 170.000 lagun baino gehiago bertaratu baita, oro har. Ojete Calor taldeak 20.000 lagun bildu zituen eta Marlina taldeak, 16.000. 15.000 lagun elkartu zituzten beste lau kontzertuk: Boney M, KOMA, Brigade Loco eta Jarfajter. Compañía plazan 37.500 lagun egon ziren.



- **Gazteluko plaza:** 170.000 lagun
- **Foruen plaza:** 64.300 lagun
- **Compañía plaza:** 37.500 lagun
- **Gurutzeko plaza:** 32.300 lagun dantzaldietan
- **Antoniutti:** 62.500, arratsaldeko zein gaueko dantzaldietan.
- **Musika-bandak:** 5.200 lagun Gurutzeko plazan

MUSIKA FOLKLORIKOA: 169.650 LAGUN

- **San Jose plazako 'Jota-soinuak' eta errondailak:** 2.220 lagun
- **Dantzaldiak Gazteluko plazan:** 10.000 lagun
- **Uztailaren 6ko folklore-jaialdia, Foruen plazan:** 2.800 lagun
- **Jauzi-jaialdia Gazteluko plazan:** 2.100 lagun
- **Txistularien Alardea San Jose plazan:** 1.000 lagun
- **Bertsolariak San Jose plazan:** 480 lagun
- **Dantzak San Jose plazan:** 1.050 lagun
- **Musika kalean:** 150.000 lagun

BESTE EKITALDI BATZUK: 84.436 LAGUN

- **Txupinazoa (Udaletxe plaza, inguruko kaleak eta pantaila erraldoiak):** 39.500 lagun
- **Herri-kirolak:** 3.000 lagun
- **Kulturen kalejira:** hogeita hamar taldetako eta kultur aniztasuneko entitateetako 1.500 lagunek hartu zuten parte.
- **Haurren eskaintza:** 4.500 lagun
- **Erakusketak:** Kondestableko *Hemingwayk ikusi zituen kartelak* erakusketan 2.366 lagun izan ziren
- **Zentzumenen Babeslekua:** 3.348 lagun
- **Gaixoa ni (Udaletxe plazan eta Gazteluko plazan):** 23.500 lagun
- **Auzoetako jarduerak:** 2.270 lagun
- **Gayarre antzokia:** 3.202 lagun
- **Ekitaldi erlijiosoak (bezperak eta zortziurrena):** 1.250 lagun

Gazteendako eremua



Gazteendako eremuko jarduerak 19.881 gazte elkartu zituzten Foruen plazan, 2025ean 22.000 gazte; % 9,6 gutxiago, batez ere, jaietan eduki ditugun tenperatura altuak direla eta. Uztailaren 7a eta 14a bitartean, 12tik 17ra bitarteko gazteek **50 jarduera** baino gehiago izan dituzte: kontzertuak, puzgarriak, lantegiak, erronkak. Lagun gehien bildu zituzten jarduerak Bacardit DJ-aren saioa (1.800 lagun) eta, Albina eta Donatellaren ikuskizuna izan ziren (1.600).

SF 2026	Uztail ak 7	Uztail ak 8	Uztail ak 9	Uztail ak 10	Uztailak 11	Uztail ak 12	Uztail ak 13	Uztail ak 14
Gazte endako eremua	3.621	1.690	1.663	3.231	3.149	1.495	2.812	2.220

Gune hori gazteen artean hedapen eta sentsibilizazio berezia behar duten gaiei buruzko informazioaren inguruko **'Puntu seguruak'** osatu zuen, eta 564 gaztek jo zuten bertara. Mankomunitatearen Uraren tabernan 2.120 lagun ase dira.

HERRITARREN SEGURTASUNA ETA BIZIKIDETZA

Salaketak

Sanferminetan segurtasun kidego guztiek jasotako salaketak **1.091** izan ziren, eta 2025ean berriz 1.304, iaz baino % **16,4 gutxiago**, beraz. Kasu gehienak, aurreko urteetan bezala, **ebasketak** izan dira (**guztizkoaren % 49,58**).

Nabarmentzekoa da, halaber, sexu-erasoengatik 28 salaketa egin direla.

SALAKETA PENALAK	2026
Segurtasun kidego guztiek jasotako salaketak	1091
Lapurreta indarra erabiltza	24
Lapurreta indarkeria erabiltza	33
Tratu txarrak familian	27
Sexu-erasoa	28
Lesioak	84
Agintaritzaren agenteen aurkako atentatua, erresistentzia, desobedientzia	14
Osasun publikoaren aurka	5



Atxilotze-agindua / Pertsonatzea / Espetxean sartzea	12
Kalteak	38
Ebasketak	541
Atzerritartasunarekin lotutakoak	9
Gainerakoak	276

Udaltzaingoaren salaketak arau-hauste administratiboak direla-eta. Aipatzekoak dira bide publikoan txiza egiteagatik jarritako 37 salaketak.

	6	7	8	9	10	11	12	13	14	Guzti ra
Bide publikoan txiza egiteagatik	3	3		4	8	15	3		1	37
Herritarren Segurtasunaren inguruko 4/2015 Legea	3	13	2	4	5	4	4	1	10	46

Droga-mendekotasunaren kontrol eta prebentzioan substantziak antzemateagatik 5 akta egin dira, eta haiei dagozkien salaketa administratiboak.

4.394 alkohol- eta droga-kontrol egin dira: 27 lagunek positibo eman dute.

IRUÑERRIKO HIRI GARRAIOA

Orotara, 1.989.860 bidaia egin dira, eta iaz 1.573.454, % 20,65 gehiago, beraz. Datu hori 2012tik erregistratutako daturik onena da, eta 2024ko datuek bakarrik gainditzen dute, 2 milioi bidaia baino gehiago egin baitziren (2.016.957).

Egunez eguneko erregistroari dagokionez, jaietako bederatzi egunetatik zazpietan 200.000 bidaia baino gehiago egin dira. Kopururik handiena uztailaren 6ari dagokio, 260.635 bidaia, eta baxuena jaietako azken egunean izan zen, uztailaren 14an, 177.682 bidaia.

OBJEKTU GALDUEN BULEGOA

Iratxeko Monasterioaren kaleko **Objektu galduen bulegoan** mota guztietako 1.007 gauza galdu direla erregistratu da. Halaber, galdutako 887 objektu jaso dira jaietan, eta jabeak direla egiaztatu duten 295-i itzuli zaizkie. Bulegotik igarotzeke 222 lagun daude, udal instalazioetan berena den objekturen bat dagoela esanez jasotako oharraren ondoren.

BERDINTASUNA

‘Eraso sexistarik gabe, Iruña aske’

Gazteluko plazako eraso sexisten aurkako argibide-gunea: 12.343 lagun (8.744 emakume, 3.497 gizon eta 2 ez bitar) joan ziren informazio bila argibide-gunera festetan.



- Uztailak 5: 862 lagun (602 emakume eta 260 gizon).
- Uztailak 6: 2.039 lagun (1.438 emakume eta 601 gizon).
- Uztailak 7: 1.341 lagun (954 emakume eta 387 gizon).
- Uztailak 8: 1.518 lagun (1.047 emakume eta 469 gizon, 2 ez bitar).
- Uztailak 9: 1.197 lagun (833 emakume eta 364 gizon).
- Uztailak 10: 1.455 lagun. (1.045 emakume eta 410 gizon).
- Uztailak 11: 1.356 lagun (947 emakume eta 409 gizon).
- Uztailak 12: 1.088 lagun (787 emakume eta 301 gizon).
- Uztailak 13: 961 lagun (691 emakume eta 270 gizon).
- Uztailak 14: 526 lagun (400 emakume eta 126 gizon).

Gertakari-kop.: 14

Lagun-egite zerbitzuaren aktibazio-kop.: 2

Deitutako mobilizazio kop.: 1

SIAI Zek artatutako kop.: 3

Euskarriak:

- Neurri handiko 3 esku gorri paratu ziren Bake plazan, Karlos III.aren etorbidean eta Gipuzkoako etorbidean
- Kanpainaren irudia txertatu da udal-agertokiaren olanetan, txupinazoaren trenean, turistendako argibide-guneetan, autobus-geltokian, tren-geltokian eta aireportuan.
- Kanpaina agertu zen hiri-autobusetan eta taxiaren, Iruñerriko Mankomunitatearekin eta MCP Moventis eta Teletaxi Sanfermin enprekin lankidetzan.
- Kanpainaren irudia mantendu egin da Udalaren edalontzi berrerabilgarrietan
- Kanpainaren irudia eta baliabideak agertu ziren Udalaren eta sanferminen sare sozialetan, baita webgunean ere.
- 1.230 kartel (QR eta Navilens kodeak barne, kanpainari buruzko informazioa eta baliabideekin, eta desgaitasuna dutenendako gida egokituaren informazio guztiarekin)
- 75.000 informazio-gida
- 50.000 pin
- 160.000 pegatina
- 55.000 txartel, erasoren bat jasanez gero eskura dauden baliabideen informazioarekin
- 12 mupi

Agenteak

Iruñeko Udala, Emakumeen Udal Kontseilua eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko talde iraunkorraren koordinaziopean eta adostuta egin da kanpaina.

Sanferminetako eraso sexisten aurrean herritarrek eta erakundeek erantzuteko protokoloaren lan-esparruan, Koordinazio Batzorde Teknikoa egunero bildu da, eta erasoei eta bestelako gorabeherei buruzko datuak bildu ditu. Batzorde horretan Berdintasuneko, Gizarte Ekintzako, Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako zuzendaritzek eta teknikariek parte hartu dute.

Udala eta mugimendu feminista koordinatu egin dira informazioa trukatzeko eta herritarren eta erakundearen erantzun-deialdia egiteko: hilaren 12an, 21:00etan, Gazteluko plazan, sanferminetan izandako eraso sexisten aurkako koordinazio- eta erantzun-protokoloaren esparruan.



“Eraso sexistarik gabe, Iruña aske” estrategiaren entitate laguntzaileak:

AENA, AEHN, ANAPEH, Tele Taxi San Fermín elkarte, Iruñeko merkatarien elkarte, CERMÍN, Autobus-geltokia, Iruñerriko Mankomunitatea, Turismo Bulegoa, Nazioarteko Prentsa Bulegoa, RENFE eta TCC, besteak beste. Materialak eskura, Informazio-gunean eta udalaren webgunean. Honako toki hauetan ere banatu ziren: tren- eta autobus-geltokian, aireportuan, hoteletan, tabernetan, saltokietan, kanpinetan, jai-guneetan, taxietan, turismo-bulegoan...

GARBIKETA

Bilketaren datuak

Uztailaren 6tik 14ra bitarte bildutako hondakinen behin-behineko datuen arabera, uztailaren 14ko gauean eta 15eko goizean bildutakoaren behin betiko datuak ezagutu arte, **1.254.440 kilo** bildu dira guztira, eta 2025eko sanferminetan, berriz, 1.178.980 kilo bildu ziren, hau da, aurtan % **6,40 gehiago**.

- **Beira: 605.600 kilo (% 11,29 gehiago)**
- **Zaborra: 341.400 kilo (% 1,18 gehiago)**
- **Ekorketa: 307.440 kilo (% 3,38 gutxiago)**

Sanferminetan bildutako zaborraren kopurua handitu da, batez ere, beira-hondakinek gora egin dutelako, % 11,29 gehiago. 2025ean 544.180 kilo izan ziren eta 2026an 605.600 kilo izan dira. Egunen arabera, beira-hondakin gehien hilaren 7an sortu zen, 88.920 kilo, hau da, urtebete lehenago baino % 8,68 gehiago. Hala ere, ehunekotan, igoera handiena hilaren 6an izan zen: 2025ean 35.800 kilo jaso ziren, eta 2026an 75.400.

Gainerako hondakinei dagokienez, igoera askoz txikiagoa izan da. Hala, Iruñerriko Mankomunitateak bildutako zaborraren kantitateak % 1,18 gora egin du, iaz 337.420 kilo eta aurtan 341.400 kilo. Bestalde, bide-garbiketa eta berdeguneetako zabor-bilketa udal-kontratak egiten du eta % 2,28 egin du gora, hau da, 2025ean 297.380 kilo eta aurtengo sanferminetan 307.440 kilo.

OSASUNA

IKUSKAPENAK

Elikagaiak ikuskatzea Iruñeko Udaleko Elikagai Ikuskaritzak 98 establezimendu eta elikagai-postu ikuskatu ditu sanferminetan, Antoniuttin, Basotxoan, Taconeran, Errekoleten plazan eta O-ko Andre Mariaren plazan jarritako postuak barne, bai eta Runa parkean jarritakoak ere. Guztira, 162 akats antzeman dira, gehienak instalazioetan, elikagaien manipulazioan eta kontserbazioan, langileen prestakuntza faltan eta trazabilitatean. Kontsumorako egokiak ez ziren 16 kilo elikagai konfiskatu dira.

Bestalde, jaien ondorioz jarduera hasi edo aldatu duten establezimenduak lokalizatu eta ikuskatu dira. Testuinguru horretan, egiaztatu zen iaz ixteko agindua edo zehapenak jaso zituzten hiru establezimendu ez zirela jarduerarik egiten ari. Gainera, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak babesten ez duen jarduera bat egiteagatik bi establezimendu ixteko agindu zen, eta beste bi establezimendutan ogitartekoen salmenta eteteko agindu zen.



Errekerimenduak zarata dela eta. Sanferminetan, Alde Zaharreko eta Zabalguneeetako ostalaritzako eta aisialdiko 400 establezimendu ikuskatu dira, eta, guztira, 2.834 ikuskapen egin dira. Horietatik % 74,31 zuzenak izan dira, 2025ean berriz % 80 izan ziren. 104 akta egin dira lizentzian emandako jarduera-baldintzak urratzeagatik, musika altuegi eta arotzeria irekita edukitzeagatik, eta kanpora begirako musika-instalazioak edukitzeagatik.

	UZTAIL AK 6	UZTAIL AK 7	UZTAIL AK 8	UZTAIL AK 9	UZTAIL AK 10	UZTAIL AK 11	UZTAIL AK 12	UZTAIL AK 13	UZTAILAK 14	GUZTIRA
EGINDAKO IKUSKAPENAK	295	335	300	330	334	295	291	327	327	2.834
ZUZENAK	176	233	236	257	251	206	230	244	273	2.106
MUSIKA ALTUA	107	98	56	66	68	81	54	73	48	651
MUSIKA OSO ALTUA	12	4	8	7	15	8	7	10	6	77

DUTXAK ETA KOMUN PUBLIKOAK

2.580 dutxa. Dutxa-zerbitzu kopuruak % 14,36 egin du gora aurreko urtearekin alderatuta: aurtan 2.580 dutxa-zerbitzu eman dira eta iaz, ordea, 2.256 eman ziren.

Komun publikoak. Sanferminetan, uztailaren 6tik 14ra bitarte, hainbat motatako komun publikoak egon dira erabilgarri etengabe Alde Zaharreko 37 tokitan. Berritasun gisa, aurtan, Gazteluko plazako ohiko komun-kamioia ordeztu, komun-modulu berriak jarri dira. Instalazio mota horrek erabiltzaileen txandakatzea arintzeaz gain, kabina gehiago ere baditu, eta, horri esker pertsona-kopuru handiagoa artatu ahal izan da aldi berean eta, hortaz, hiriko gune jendetsuenetako batean zerbitzua indartu egin da.

Hiriaren periferiatik erdigunera komun autogarbigarrietako 31 gune daude, hiriko auzoei zerbitzua emateko. Saneamendu sarearekin konektatutako kabinak eta hiriko erdiguneko komun finkoak 24 orduz egon dira irekita (uztailaren 6ko goizeko 08:00etatik uztailaren 15eko goizeko 08:00ak arte). Jaien aurreko eta ondorengo egunetan ordutegi bereziak ezarri ziren komun finkoetan, Antoniutiko ferietako salerosleendako –feriak muntatzen eta biltzen ari ziren bitartean– baita Basotxoko salmenta-postuetarako ere.

Aurreko urteetan bezala, Udalak, Polizia kidegoek eskatuta (Udaltzaingoa eta Foruzaingoa), ikuztegi zerbitzua gaitu du, atxilotuei ematen zaizkien mantak autoklabe bidez desinfektatu, garbitu eta lehortzeko.

TURISMOA

TURISMO BULEGOA



San Saturnino kaleko Turismo Bulegoak 1.728 lagun hartu ditu, bertako % 60 baino gehiago, eta gainerakoak, nazioartekoak (38,88%). Turismo Bulegoak egindako arta-kopurua % 8 murriztu da 2025arekin alderatuta, orduan 1.873 lagun 1.439 eskari artatu baitziren. Bulegoan egindako galdera gehienak jaietako programari buruzkoak izan dira: Konpartsaren ibilbidea, entzierroetarako sarrerak, familiendako jarduerak, baita hiriko baliabideei buruzkoak ere, aparkatzeko eremuak, esaterako.

Bisitarien artean gehienak Nafarroakoak izan dira, eta ondoren Madrilekoak, Bartzelonakoak eta Gipuzkoakoak. Mugez gaindi, Akitania Berritik etorri da bisitari gehien, eta gainerakoak Frantziako beste lekuetatik, Estatu Batuetatik, Italiatik eta Erresuma Batutik.

Hotelen okupazioaren batez bestekoa % 89,8 izan da, hasieran aurreikusi zen % 81,7aren gainetik.

KOMUNIKAZIOA

KOMUNIKABIDEAK: 670 PROFESIONAL BAINO GEHIAGOK EDUKI DUTE AKREDITAZIOA

Akreditatutakoak: 138 komunikabideetako 670 profesional grafikok eta kazetarik eman dute 2026ko sanferminen berri. Estatuko komunikabideez gain, 12 herrialdeetako kazetariak eduki dute akreditazioa: Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Alemania, Portugal, Suedia, Bulgaria, Ukraina, Turkia, Mexiko eta Tailandia. Nazioko eta nazioarteko ohiko komunikabide eta agentziek egindako lanaz gain, nazioarteko serie bateko filmaketa/grabaketa taldeak ere akreditatu dira, baita jaiei eta alderdi zehatzagoei buruzko dokumentalak eta erreportaietakoak ere.

- **Txupinazoa:** 33 komunikabidetako 175 lagun akreditatuta
- **Entzierroak:** 130 komunikabidetako 404 lagun akreditatuta
- **Gaixoa ni:** 46 komunikabidetako 93 lagun akreditatuta

SARE SOZIALAK

2026ko sanferminak hiriko historiako biralenak izan dira. @SanferminesPamplona kontuak Instagramen eta Facebooken dituen profil ofizialek 27,3 milioi erreprodukzio baino gehiago izan dituzte, 5.900.000 kontu baino gehiagora iritsi dira eta 15 egun eskasetan 33.800 jarraitzaile gehitu dituzte (Instagramen igoera % 40koa izan da). Iruñeko Udalaren estrategia izan da denbora errealean helaraztea jaietako funtsezko uneak, mugikorretik denek bizi ahal izan ditzaten Iruñean uztailaren 6tik 14ra gertatzen diren ekitaldi eta *momentiko* guztiak.

Jaietan 493 storie, eta 232 post eta reel argitaratu dira bi sare horietan, ekitaldi garrantzitsuenei dagozkienak (txupinazoa, entzierroak, Gaixoa ni edo kontzertuak) zein agenda eta kanpainei buruzko informazioari buruzkoak. Erabiltzaile horiek sanferminak ikusi egin dituzte, baita mundu osoan iruzkindu eta banatu ere. Orotara, 650.000 elkarrekintzatik gora izan dituzte.

Aurten ere, hauxe izan da sanferminetako unerik biralena: txupinazoak eztanda egin ondoren



gaiteroak Udaletxe plazara irteten diren unea; une horretatik zazpi egunetara 3,8 milioi bistaratzeko baino gehiago izan zituzten orotara sare sozialetako profil ofizialetan. 32.000 lagunek baino gehiagok partekatu zituzten bideo horiek, eta 115.000 lagunek baino gehiagok gustukoa zutela adierazi eta iruzkinak egin zituzten.

Instagram eta Facebook sareez gain, Tik Tok eta Xko perfin ofizialetan (@SanferminesPamplona) ere egin da hedapena, herritarrengana era zuzenago eta dinamikoagoan iristeko.

Iruñean, 2026ko uztailaren 15ean